

PRENTSAURREKOA (07/06/07)

**HAURRESKOLAK PARTZUEGOAN ADABAKI GEHIAGORIK EZ!
IRTENBIDE OSOKOA BAI!**

Bihar, ekainaren 8an, Hezkuntza Saileko Sailburuak, Tontxu Camposek, Gasteizko Legebiltzarrean agerraldia egingo du, PP alderdi politikoak eginiko bi galderei erantzuteko. Galderak, Haurreskolak Partzuegoko ikastetxeek duten funtzionamenduari buruzkoak dira, eta baita ere alderdi horren arabera funtzionamenduan gertatzen diren arazo larriei Hezkuntza Sailak zer irtenbide proposatzen duen jakiteko.

Datorren irailean 4 urte beteko dira Haurreskolak Partzuegoa sortu zenetik. 2005ean lehen Lan Hitzarmena sinatu zen, bertan Haur Eskolak 212 egun zabalduko zirela hitzartuz.

2.006ko martxoan, Aralar Alderdiak eginiko legez besteko proposamen baten ondorioz, Gasteizko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari honako ebazpena eman zion: Haurreskolak Partzuegoko eskoletako egunen eskaintza 212 egunetik 221 egunetara zabaltzea.

Proposamen horrekin batera, Parlamentuak ez zuen baliabideen azterketarik egin, ez zuen aurrekontu azterketarik egin, eta kezkarriena dena, legez besteko proposamen hori inongo aurre diagnosirik gabe egin zuen.

“Haurreskolak” Partzuegoa sortu zenetik urtetik urtera handitzen joan da, urtero hezitzaile eta langile gehiagoren beharra izanik. Ikasturte honetan, 3 lurraldetan 123 haur eskola dago, eta 700 langile inguru. Datozen urtetan Haurreskolak Partzuegoak egun duen dimentsioa gutxienez bikoiztu egingo da.

Une honetan, “Haurreskolak” Partzuegoan ordezkapenak betetzeko, langileen lizentziak eta baimenak betetzeko, ia giza baliabiderik ez dago eta honek kudeaketan eta haur eskoletan arazoak sortzen ditu.

Gaur egun “Haurreskolak” Partzuegoko zerrendan 1.860 pertsona daude eta horietatik 1.076 beste leku batean ari dira lanean. Langilegoaren ordezkapenak betetzeko 132 ordezeko besterik ez da geratzen, eta lurralde guztietan arazo badira ere, lurralde kaltetuenak Araba eta Gipuzkoa dira.

“Haurreskolak” Partzuegoan ia 4 urteko ibilbidea egin ondoren, eta haur eskola hauetan dugun ordezkarietatik (% 66’66a) datorkigun arduraz, biharko agerraldian Sailburuak zer erantzun duen ezagutu gabe, LAB sindikatuan garbi daukagu adabakiak alde batera uzteko garaia iritsia dela, eta irtenbideak eskaintzerakoan orokortasunean eman beharra dagoela. Halaber, oraingo egoeraren erantzuleak bilatzekotan, **erantzule** horiek ez ditugu Partzuegoak duen egoitzan aurkituko, **Lakuan** baizik.

Aipatu dugun irtenbide osoko horren harira, hauek dira LABen ustez eman beharreko urratsak:

- Hezkuntzan oro har, **0-3 zikloan, diru gehiago inbertitzea**; Europa mailan Barne Produktu Gordinetik Hezkuntzara bideratzen den diru portzentaia %6,5a den bitartean, EAEn %3,5ekoa da. Aurrekontua handitu ezean nekez arazoaren mamiari helduko diogu.
- **Egutegia trinkotzea**, hau da, haur eskola guztiek egutegi bera izatea, tokian tokiko jaia errespetatuz, eta gainontzeko hezkuntza etapek duten moduan: ikasturte hasierak, Gabonak, Aste Santua.
- Administrazioak neurriak hartu beharko ditu hemendik aurrera Lanbide Heziketa eta Irakasle Eskoletatik aterako diren Haur Hezkuntzako **espezialistak gutxienez elebidunak** izan daitezen.
- Ziklo honetarako **eredu profesional bakarra** osatzea, lan baldintza berberak izango dituen, haurren duintasun, eskubide eta behar guztiak babestuko dituen, heziketa lanaren ardatz eta helburu haurra izanik.
- **Ziklo honetako langileen lana aitortzea.**
- Hezkuntza Sailak **errealak izango den planifikazioa** egitea, datozen urtetan izango diren beharrak kontuan hartuko dituen: pertsonalago kudeaketarako langileen beharra, irakasleen beharra, zabalduko diren ikastetxe berriak, instalakuntzak,
- Ordezkapenak behar den bezala bete ahal izateko, eta Lan Eskaintza Publikoa egingo den bitartean lanean ari den langileriaren %10a gehiago kontratatzea, langile hauen lan baldintzak egokituz.

Hemen zerrendatutako urratsak zalantzarik gabe ez dira guztiak izango, baina LABen ustez urrats hauek beharrezkoak dira benetan Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen duen zerbitzua, haurrek jasotzen duten heziketa, pertsonalago kudeaketarako eta haur eskoletako langileen lan baldintzak hobetu nahi ditugu.

Donostian, 2007ko ekainaren 7an.